


GIPUZKOAKO KULTURA
POLITIKOAREN INGURUKO
IKERKETA PROZESUAREN
LEHEN FASEA

-IKERKETA KUANTITATIBOA-



AURKIBIDEA

0	SARRERA -----	3
1	METODOLOGIA OHARRAK -----	5
2	ANALISIA ETA ONDORIOAK -----	8
3	EMAITZAK -----	13
3.1.	OINARRIZKO HAINBAT BALIO -----	14
3.1.1	HAINBAT GAIREN GARRANTZIA NORBERAREN BIZITZAN -----	14
3.1.2	ERLIJIO SINISMENAK -----	16
3.1.3	ETORKIZUNEAN EMAN DAITEZKEEN HAINBAT ALDAKETEN INGURUKO IRITZIAK -----	17
3.1.4	ETORKIZUNEAN EAE-RENTZAT ETA GIPUZKOARENTZAT LEHENTASUNEZKO GAIK -----	18
3.2.	SOZIALIZAZIO POLITIKOA -----	20
3.2.1.	POLITIKA NERABEZAROAN (OROIMENA) -----	20
3.2.2.	POLITIKAZ HITZ EGITEKO OHITURA EGUN -----	21
3.2.3.	INTERESA POLITIKAN (<i>Adituei bakarrik egindako galdera</i>) -----	22
3.2.4.	ALBISTEAK IKUSTEKO OHITURA -----	23
3.2.5.	POLITIKA-GAIEN ULERMENA -----	24
3.2.6.	POLITIKAK ERAGINDAKO SENTIMENDUAK -----	26
3.2.7.	EZKER-ESKUIN ARDATZEAN NORBERAREN KOKAPENA -----	27
3.3.	DEMOKRAZIAREN KONTZEPZIOA ETA HIRITARTASUNA -----	28
3.3.1.	DEMOKRAZIA TERMINOA ZEREKIN LOTZEN DUTEN -----	28
3.3.2.	DEMOKRAZIAREKIN LOTUTAKO EZAUGARRIEN GARRANTZIA (<i>Batzarkideei bakarrik egindako galdera</i>) -----	29
3.3.3.	HIRITARREN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK -----	30
3.3.4.	HIRITAR ONAREKIN LOTUTAKO EZAUGARRIEN GARRANTZIA -----	31
3.4.	GIPUZKOAKO POLITIKAREN ETA POLITIKARIEN GAINEN IRITZIAK -----	32
3.4.1.	GIPUZKOAKO POLITIKAREN IRUDIA -----	32
3.4.2.	POLITIKAREN PRESTIGIO FALTAREN ARRAZOTIAK (<i>Batzarkideei bakarrik egindako galdera</i>) -----	33
3.4.3.	GIPUZKOAKO POLITIKARIEN IRUDIA (<i>Adituei bakarrik egindako galdera</i>) ---	34
3.4.4.	POLITIKARIEN ARTEKO SALBUESPENAK (<i>Adituei bakarrik egindako galdera</i>)	35
3.5.	GIZARTE GAIEN INGURUKO KEZKA ETA PARTE HARTZEA -----	37
3.5.1.	INPLIKAZIO SOZIAL ETA POLITIKOARI BURUZKO IRITZIAK -----	37
3.5.2.	PARTE-HARTZE SOZIAL ETA POLITIKOEN GAINEN ADOSTASUN MAILA ----	39
3.5.3.	ELKARTEETAN PARTE HARTZEA ETA BORONDATEZKO LANA -----	41

3.5.4.	ELKARTEETAN PARTE HARTZEA ETA BORONDATEZKO LANA, ELKARTE MOTEN ARABERA -----	42
3.5.5.	ELKARTEEKIKO BEGIKOTASUNA, ELKARTEZ ELKARTE -----	44
3.6.	PARTE-HARTZE INSTITUZIONALAREN INGURUKO JARRERA ETA IRITZIAK -----	46
3.6.1.	ERAKUNDEEK PARTE HARTZEA BEHAR ADINA BULTZATZEN AL DUTEN-----	46
3.6.2.	PARTE-HARTZE ESPERIENTZIEN ERAGINA (10 hobetu eta 0 okertu)-----	47
3.6.3.	HERRITARREI GEHIAGO PARTE HARTZEA GUSTATUKO OTE LITZAIKEEN (Batzarkideei bakarrik egindako galdera) -----	48
3.6.4.	NORBERE DENBORA LIBREA PARTE HARTZERA BIDERATZEKO PRESTUTASUNA -----	49
3.6.5.	POLITIKAN PARTE HARTZEKO AUKERA ZABALTZEA (10 erraztu eta 0 oztopatu)-----	50
3.6.6.	ERAKUNDEEK PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO EGIN DITUZTEN EKINTZEN ERAGINA -----	51
3.6.7.	PARTE HARTZEA SUSTATZEKO HAINBAT EKIMENEN INGURUKO EZAGUTZA, IRITZIA ETA JARRERA -----	52
3.6.8.	JENDEAREN PARTE-HARTZEA (Batzarkideei bakarrik egindako galdera) -----	53
3.6.9.	PARTE HARTZEA NOLA EGITURATU-----	54
3.7.	JOKABIDE POLITIKOAK. PARTE HARTZE ELEKTORALA -----	55
3.7.1.	BOTOA EMATEKO OHITURA (Adituei bakarrik egindako galdera) -----	55
3.7.2.	BETI ALDERDI BERARI EMATEN OTE DIOTEN BOTOA (Adituei bakarrik egindako galdera) -----	56
3.8.	INTERNETA ETA PARTE HARTZE POLITIKOA -----	57
3.8.1.	INTERNETEN ERABILERA -----	57
3.8.2.	ONLINE SARE SOZIALAK EDUKITZEA -----	59
3.8.3.	ONLINE SARE SOZIALEN ERABILERA MAIZTASUNA -----	60
3.8.4.	ONLINE SARE SOZIALEN ERABILERA MODUA-----	61
3.8.5.	INTERNET BIDEZKO PARTE HARTZE POLITIKOA-----	62
3.9.	NAZIO AUZIAREKIN, GATAZKAREKIN ETA INDARKERIAREKIN LOTUTAKO JARRERA ETA IRITZIAK -----	63
3.9.1.	HAINBAT LURRALDE-EREMUREKIKO IDENTIFIKAZIOA -----	63
3.9.2.	NAZIO SENTIMENDUAK -----	65
3.9.3.	ESPANIAR HARROTASUNA ETA EUSKAL HARROTASUNA -----	66
3.9.4.	LURRALDE TASUNA: EUSKAL HERRIAREN MAPA -----	67
3.9.5.	INDEPENDENTZIAREKIKO JARRERAK-----	68
3.9.6.	NAZIO AUZIARI ETA DEMOKRAZIARI BURUZKO IRITZIAK -----	70
3.9.7.	INDARKERIARI, TERRORISMOARI ETA ERREPRESIOARI BURUZKO IRITZIAK -----	71
3.10.	LAGINEN EZAUGARRIAK -----	72
3.10.1.	DATU SOZIODEMOGRAFIKOAK -----	72
3.10.2.	EUSKARA GAITASUNA ETA IRITZIA -----	77

0 SARRERA

Hemen aurkezten den ikerketan hainbat eduki edo gai landu dira. Bederatzi ataletan banatu ditugu horiek guztiak:

- Oinarrizko hainbat baliorekin hasten da txostena.
- Ondoren, inkestari erantzun diotenen Sozializazio politikoa aztertzen da.
- Hirugarren atalak Demokraziaz duten ikuspegia eta hiritartasuna ulertzeko modua aztertzen du.
- Gipuzkoako politikaren eta politikarien gaineko iritzia ere bildu dira.
- Bosgarren atalean gizarte gaien inguruko kezka eta parte-hartzea lantzen da.
- Hurrengo hiruretan parte-hartzearen zenbait eremutan sakontzen da (Parte-hartze instituzionalaren inguruko jarrera eta iritzia, Jokabide politikoa; Parte-hartze elektorala, eta Internet eta parte-hartze politikoa).
- Azken atalean, nazio auziarekin, gatazkarekin eta indarkeriarekin lotutako jarrera eta iritzia landu dira.

Gipuzkoako bi sektore sozial berezik erantzun diote inkestari, eta, ondorioz, aipatutako emaitzek haiei egiten diete erreferentzia:

- Batetik, Gipuzkoako Batzar Nagusietako batzarkideak. 51 dira guztira eta horietatik 47k bete dute inkesta. Hori oso-oso gutxitan gertatu den gauza bat da, ia inoiz ez esatearren. Ondorioz, galdetegiak eduki dituen edukien inguruan ia batzarkide guztiak banaka eman dituzten iritzia bilduta aurkezten dira txosten honetan. Norberaren sozializazio politikoa, demokraziaz, herritarren parte-hartze sozialaz eta politikoa dituzten iritzia, besteren artean. Gipuzkoako bizitza politikoa duten posizio kualitatiboki garrantzitsuarengatik, oso interesgarriak iruditzen zaizkigun iritzia.
- Bestetik, bigarren multzoa dago, lan honetan **adituen multzoa edo panela** esan dioguna. Gipuzkoako gizarte-ehunaren ikuspegira hurbilketa bat egitea izan da asmoa. Metodozko oharretan azaltzen da zer-nolako erabakiak hartu diren panel hori osatzeko eta nolako prozedura erabili den. Azkenean, panela 88 pertsonak osatu dute. Gipuzkoako errealitate ekonomiko, komunikatibo, sozial, kultural zein akademikoan zeresan handia duten pertsonak dira guztiak. Hala ere, azpimarratu nahi da panel honetako iritziek ez dutela ezein talde ordezkatzeko: 89 pertsona horien iritzia dira, norbanako gisa emanak. Ez dute sektore profesional bat edo beste ordezkatzeko, ezta sektore sozial bat edo beste ere. Baina pertsona horiek Gipuzkoako errealitate ekonomiko, komunikatibo, sozial, kultural zein akademikoan dituzten ardurengatik edo betetzen duten paperarengatik, haien iritzia kualitatiboki interesgarriak direla iruditu zaigu.

Lan honetan aurkezten diren datuekin, argi egin nahi zaio hainbat galderari, eta galdera berriak sortzeko ere balio dezatela nahi genuke. Kultura politikoaz eztabaida markoak sustatzea eta hausnarketa kolektiboak bultzatu eta hobekuntza aukerak bilatzea da Gipuzkoako Foru Aldunditik martxan jarritako lan ildo honen helburua. Hori guztia, ez soilik hausnarketan geratzeko, baizik eta Lurraldearen Kultura politikoari dagozkion erronkei begirako sinergiak eta elkarlanak antzeman ahal izateko ere bai, horiei elkarrekin ekin ahal izateko eragile guztien artean. Lan honekin, lehen urrats baliagarri bat egitea espero da.

Azkenik, eskerrak eman beharrean gaude inkesta bete duten batzarkide eta aditu guztiei. Guk proposatutako gaiei buruzko iritzia ematean oso informazioa baliagarria eman dutelako. Haiek dira lan honen benetako bihotza, haien ekarpenik gabe ezinezkoa izango baitzatekeen lan hau egitea. Beraz, eta bihotz-bihotzez, mila esker eta zorionak guztioi hausnarketarako hain baliagarriak diren eduki hauek sortzearen.

1 METODOLOGIA OHARRAK

Landa-lana 2016ko abenduaren 7tik 2017ko urtarrilaren 13ra egin dugu. Oro har, batzarkideen artean ez dugu arazo berezirik izan landa lana antolatzeke garaian. Adituen artean, ordea, zerrendako pertsona batzuekin kontaktuan jartzeko zailtasun gehiago topatu ditugu. Beste batzuk nahiago izan dute ez erantzun. Hala ere, azkenean bete ahal izan ditugu jarritako helburuak. Hala ere, azkenean bete ahal izan ditugu jarritako helburuak.

IKERKETA TEKNIKA

Emailtara loturiko on line betetzeko inkestak egin dira, egituratutako galdetegiaren bitartez.

BATZARKIDEEN UNIBERTSOA ETA ADITUEN PANELA

Bi unibertso ezberdin izan dira. Batetik, Gipuzkoako Batzar Nagusietan ordezkari direnena. Kasu horretan, denak ziren inkestatu beharrekoak. Azkenean, lagina edo erantzun dutenen kopurua, 51tik 47 izan da. Erantzun ez dutenak, nahi ez edo bestelako arrazoi bat tarteko izan da.

Ehun sozial edota adituen kasurako, unibertsorik ez da zehaztu. Hala ere, bere osaketarako bi irizpide ezarri dira panelaren osaketarako:

- Bost eremu panelean nolabait ordezkatuak egotea. Bost eremu horiek hurrengoak izan dira: Garapen ekonomikoa, Kultura, Komunikazioa, Hezkuntza eta Jakintza sorrera.
- Aniztasun ideologikoa egotea, edo bestela esanda, ez izatea panel osoa joera zehatz batekoa. Horretaz gain, saiakera egin da Gipuzkoako errealitate soziopolitikotik, ahal den neurrian, ahalik eta hurbilen egotea. Azken hau, ordea, malgutasunez ulertu behar da. Izan ere, askok ez dute bere burua identifikatuta ikusten alderdi edo joera politiko batekin eta bestetik panelean sartzeko ez zaio inori horretaz galdetu. Zailtasun hori nolabait saihesteko modua, aurrerago azaltzen den bezala, batzarkideei oniritzia eskatzea izan da.

GALDETEGIAK

Nahiko antzekoak izan badira ere, batzarkideei egindako galdetegi eta adituen panelari egindakoa ez dira guztiz berdinak izan. Ondorioz, lau galdetegi erabili ditugu (ikus I. eranskina), talde bakoitzari dagozkionak, eta horietako bakoitzari bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniakoa.

ADITUEN PANELAREN OSAKETA

❖ *PANELAREN DISEINUA ETA OSAKETA*

Panela osatzeko hainbat urrats jarraitu dira:

- Aztikerrek, aipatu bost eremuak kontuan hartuta, Batzar Nagusietan ordezkatuak dauden talde politiko bakoitzeko ordezkari banari izen zerrenda bat proposatu zion. Aldi berean, talde politiko bakoitzak beren proposamenak egin zituen.
- Bigarren urratsean, izen guztiak bilduta, izenak arloka sailkatuak talde guztiei bidali zitzairen, puntuazio sistema baten bidez bakoitzak bere hautaketa egin zezan eremu bakoitzaren barruan. Talde bakoitzak eremu bakoitzean, derrigorrez 10 pertsona hautatu ditu (bakoitzari puntu kopuru ezberdina emanez, 1etik 10era), "Ezagutzaren" eremuan ezik, bertan 5 hautatu dituztelarik (eremu horri dagozkionak gainontzeko eremuetan ere bait daude).
- Hautaketa egiteko orduan genero oreka minimo bat errespetatu behar izan da. Emakumeen proportzioa %40tik gorakoa izan behar da. Proportzio minimo hori eremu guztietan errespetatu behar da.
- Behin Aztikerrek hautaketa guztiak jasota (talde politiko edo parlamentario bakoitzeko bana), puntuen batuketara egin eta guztira 100 pertsonen osatutako panela adostu da.

❖ *PANEL ERREALA*

Jarraian ageri den loturako taula eta grafikoetan ([Laginen ezaugarriak](#) atalaren barruan), elkarrizketatu dugun panelaren osaera adierazten dugu, hainbat aldagaien arabera. Batzarretako talde politikoekin adostutako 100 izenetatik, 88k panelean sartzeko oniritzia eman eta inkesta bete dute.

LANDA LANA

Batzarkideen kasuan, inkestak, **2016ko abenduaren 7tik 30era** (biak barne) luzatu da.

Aditu panelak, **2016ko abenduaren 16 eta 2017ko urtarrilaren 13 bitarte** (biak barne) bete ditu.

EMAITZEN HAZTAKETA

Ez da emaitzarik haztatu, ez batzarkideen kasuan ezta aditu panelaren kasuan. Batzarkideen kasuan, egondako hutsuneak ez dute emaitza desitxuratzen. Ondorioz, bere horretan uztea da onena.

Adituen kasuan, panel honek ez du inor ordezkatzeko helbururik. Ondorioz, egon daitezkeen alborapenak bere horretan utzi dira. Horiek "zuzentzea" unibertso zehatzik ez dagoen neurrian eta izan zitekeen unibertsoaren inguruko daturik ez dagoen neurrian, jasotako emaitzak haztatzea zalantza tekniko handiko ariketa litzateke. Aurretik aipatu bezala, panela, batzarkideek onartutako pertsonen osatua egon da eta hori da berme bakarra.

SAILKAPENAK ETA BERKODETZEAK: 0 ETA 10 ETA 1 ETA 10 BITARTEKO ESKALETAN OINARRITUTAKO GALDEREN EMAITZEN SAILKAPENA

Zenbait galderatan, erantzuteko eskala bat eman diegu, hainbat itemi 0 eta 10 edo 1 eta 10 bitarteko puntuaketa eman ziezaioten. Datuak aurkezterakoan, batzuetan batez besteko emaitzak aurkeztu ditugu. Beste batzuetan, berriz, maiztasunak aurkezteko garaian, honela bildu ditugu erantzunak:

	0-10 ESKALAK	1-10 ESKALAK
0	Bat ere garrantzirik ez (0-1)	
1		
2	Garrantzi txikia (2-4)	Garrantzi txikia (1-4)
3		
4		
5	Garrantzi ertaina (5)	Garrantzi ertaina (5-6)
6	Nahiko garrantzitsua (6-8)	
7		
8		
9	Garrantzi handia (7-10)	Garrantzi handia (7-10)
10		

2 ANALISIA ETA ONDORIOAK

BALIOAK¹: BI IKUSPUNTU

Batzarkideen eta adituen artean, balioei erreferentzia egiten dieten esaldiei emandako garrantziak oso hurrenkera antzekoa izan du, balio jakinetatik haratago, Gipuzkoarrekin orokorrean alderatzen badugu eta, bereziki, gipuzkoar gazteen hierarkiarekin, lehen bi segmentu horien artean alderik ez dagoela esan daiteke. Lau multzoak alderatuz gero, badira antzekotasunak. Bai gipuzkoarrekin orokorrean, eta bai gazteekin ere, neurtutako balioen artean, garrantzi gehien duten lehen bietan bat egiten dute² (Familia-harreman onak edukitzea eta Osasuntsu egotea eta osasuna zaintzea) baita azken esaldian ere³ (Alderdi erlijioso edo espiritualekin kezkatzea). Deigarria egiten da batzarkideen kasuan alderdi erlijioso edo espiritualekin kezka azken lekuan kokatzea, haien sinesmenak zein diren kontuan hartuta.

Garrantzi gehien duten bi balioak eta gutxiena duena berdina izanik multzo guztietan, hierarkia horretan tartean dauden gainerako balioetan edo esaldietan alde handiak daude batzarkide eta adituen eta bereziki gazteen artean. Gazteentzat garrantzi handikoak ziren balioak indibidualistagoak ziren; aldiz, batzarkideen eta adituen artean bestelako balioek hartu dute garrantzi gehiago. Gazteentzat, adibidez, aipatutakoen ondoren, honako balio hauek dute garrantzi handiena: *Lagun eta ezagun asko edukitzea*, *Dirua irabaztea* eta *Lanean arrakasta edukitzea* dira. Batzarkideen eta adituen artean, balio horiek hierarkian dezente beherago ageri dira, eta batez besteko balioetan ere alde nabarmena ikusten da. Bestetik, *Dirua eta denbora eskaintzea dotore edo guapo egon ahal izateari* esaldiak ez du garrantzi handia hartzen ez multzo batean ez bestean, baina gazteen kasuan nabarmen garrantzi gehiago du. Aldiz, kontrako norabidean, batzarkideen eta adituen artean inguru sozial eta fisikoarekiko ardurak garrantzia nabarmen gehiago hartzen du. *Ingurumena zaintzea*, *Munduko beste lekuetan gertatzen denarekin kezkatzea*, *Auzoa edo komunitatea hobetzeko gauzak egitea* eta *Politika gaietan interesa agertzea* lehenengo lekuetan eta batez besteko altuekin agertzen dira. Gazteen kasuan, ordea, kezka horiek azken lekuetan agertzen ziren.

Hori guztia harremanetan jartzen denean gipuzkoarren balioekin, hau da, haiek garrantzia zeri ematen dioten, badirudi *continuum* bat marrazten dela garapen indibidualista-kolektiboaren artean, non gazteak polo indibidualistan kokatzen diren, batzarkideak eta adituak kolektiboan eta Gipuzkoako jendartea erdiko punturen batean dagoen, balio batzuetan indibidualistagoa besteetan kolektibistagoa, baina orokorrean indibidualistetatik hurbilago.

¹Atal honetan, lan honetako datuak testuinguruan jartzeko, *gazteak eta politika Gipuzkoan 2009* eta Prospekzio Soziologikoen Gabinetearen 58. *Euskal Soziometria: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina* erabili ditugu nagusiki, eta Gipuzkoako azpilagina guk ustiatu dugu.

²*Familia-harreman onak edukitzea* esaldiari garrantzi handia dute eman diote batzarkideek, adituek eta gazteek (9,1eko eta 9ko batez bestekoa) eta gipuzkoarren %90,1ek ere bai,, eta *Osasuntsu egotea eta osasuna zaintzea* esaldiak 8,4 eta 8,6ko batez bestekoa atera du.

³ *Alderdi erlijioso edo espiritualekin kezka* esaldirako ez dugu bildu gipuzkoarren daturik. Batzarkideen, adituen eta gazteen artean 4,0, 3,9 eta 2,8ko batez bestekoak eman ditu, hurrenez hurren.

Horrek segmentu batzuen eta besteen artean agertutako aldeak aztertzeraz garrantzitsuak. Izan ere, batzarkide eta aditu horiek gainerako gipuzkoarren aldean profil ezberdinak agertzeak, are gehiago gipuzkoar gazteekin, eragin nabarmena du Kultura Politikoan.

ALDAGAI SOZIODEMOGRAFIKOAK

Lehenik eta behin, objektiboagoak diren aldagaiei erreparatu diegu, lagungarriak izango direlakoan aldeak interpretatzeko, testuingurua marrazteko. Adinari dagokionez, batzarkideen eta adituen batez bestekoa populazioarena baino txikiagoa da⁴, baina bereziki erdiko adin tarteak hartzen du proportzio handiena batzarkide eta adituen artean⁵, gazteenen (18 eta 30 urte artekoak) eta bereziki nagusien (70 urtetik gorakoak) multzoak txikiagoak direlarik.

Generoari dagokionez, gipuzkoarren artean eta batzarkideen artean emakumeen presentzia apur bat handiagoa da. Adituen artean, berriz, gizonak nabarmen gehiago izan dira⁶.

Ikasketa maila aintzat hartuta, biztanleria orokorraren gainetik daude batzarkideak⁷ eta, bereziki, adituak. Baita ekonomikoki ere, bai batzuek eta bai besteek populazioaren gainetik hautematen baitute euren burua⁸.

Azkenik, erlijio gaitan, herritarren artean katoliko praktikante gehiago dago batzarkide eta adituen artean baino. Batzarkideen artean, oro har biztanleen artean bezala, katoliko ez-praktikanteena da multzo nagusia (herena inguru); adituen artean, aldiz, multzo hori nabarmen txikiagoa da eta herena osatzen dute euren burua ez-sinestuntzat edo ateotzat dutenek.

Laburtuz, batzarkideak populazioaren gainetik dabilta ikasketa mailan eta maila ekonomikoan, erdiko adin tarteak dira gehienak, eta genero banaketan eta erlijio praktiketan antzekotasun handiak dituzte. Paneleko adituak, batzarkideak bezala, populazioaren gainetik daude ikasketa mailan eta maila ekonomikoan, eta erdiko adin tarteak dira nagusi. Genero banaketan, berriz, gizonezkoen aldeko desoreka agertu da eta erlijio praktiketan ez-sinestunak dira gehienak.

Beraz, esan daiteke egoera ekonomikoak eta maila kulturalak eragiten dutela interes komunitarioan eta politikoan: lehenak zenbat eta handiagoak izan, gora egiten du bigarren aldagaiak ere.

SOZIALIZAZIO POLITIKOA ETA INTERESA POLITIKAN

Hala ere, horretaz gain, haurtzaro eta nerabezaro garaian edukitako sozializazio politikoak ere eraginik izango zuen. Gipuzkoar biztanleriaren barruan, batzarkideek eta adituek errealitate guztiz ezberdina bizi izan baitzuten gazte aroan, eta halaxe bizi dute egun ere, politikari dagokionez. Batzarkideen %51,1ek eta adituen %42,7k adierazi dute, haurrak edo nerabeak zirenean, maiztasun handiaz hitz egiten zutela politikaz haien etxeetan. Gipuzkoar guztien kasuan ehuneko hori %17,3ra jaisten da, eta gazteen kasuan %9,3ra. Proportzio eta alde

⁴Batzarkideek, batez beste, 44,4 urte dituzte, adituek 48,6, herritarrek 51,3 (Inkesta datuak eta INE, 2016 urtarrilaren 1a, errolda datu jarraituak. 18 urte edo gehiagokoak kontuan hartuta soilik).

⁵40 eta 59 urte artekoak %58,7 eta %53 dira hurrenez hurren, eta populazioan %37,2.

⁶Gipuzkoarren artean %51,6 dira emakumeak, eta erantzun duten batzarkideen artean %54,3; aldiz, adituen artean %39,3 dira.

⁷Batzarkideen artean, goi ikasketak –lizentziaturak– %37 eta Doktoretza/Masterrak %23,9, eta adituen artean goi ikasketak %39,3 eta Doktoretza/Masterrak %45. Gipuzkoarren artean, goi ikasketak edo hortik gorakoak dituztenak %23,7 dira (EUSTAT. Hezkuntzaren udal estatistika. 2015/01/01.)

⁸%63,6 batzarkideen artean eta %68,3 adituen artean, batez bestekotik gora edo zertxobait gora ikusten dira.

berdintsuak ikusten dira egun ere, eta politikaz maiztasun handiagoarekin hitz egiten dute testuinguru sozialetan (familiarrekin, lagunekin eta lankideekin edo ikaskideekin). Batzarkide eta adituek asko hitz egiten dute testuinguru guztietan, gipuzkoarrek nabarmen gutxiago eta gazteek are eta gutxiago (eta biek hurrenkera horretan, hau da, gehien familiarrekin, gero lagunekin eta azkenik lankide eta ikaskideekin).

Sozializazioak eta politikarekiko interesean dauden ezberdintasunek informazio politikoa kontsumitzeko ohitura eta politika ulertzeko gaitasun oso ezberdinetara daramatza batzuek eta besteak. Batzarkide eta adituek oso kontsumo tasa handiak dituzte, edozein dela ere bitartekoa, eta adituek, gainera, herritarrekin alderatuta, ulermen maila ere oso handia dute. Bi azpimarra egin beharra daude hemen: bata (deigarria da), bai batzarkideek bai adituek oso portaera antzekoak dituztela telebista, irratia eta egunkaria erabiltzeko orduan eta horietan albistegiez edo politika programez egiten duten erabileran. Aldiz, Interneten erabileran, bietan handia izanagatik ere, adituena nabarmen altuagoa da batzarkideena baino. Bigarrena, batzarkideek herritarren ulermen mailaz dituzten usteak oso hurbil daude herritarrek beraiek dituztenetatik, baina ez daude hain hurbil adituek herritarren ulermen mailaz duten ustea eta herritarrek eurek dutena.

Politikak sortarazten dizkien sentimenduei erreparatuta, guztiz kontrakoak dira batzuetan eta besteetan. Horretan ere, batzarkideen eta adituen joerak antzekoak dira (interes handia –gehiago adituetan– eta konpromiso handia –gehiago batzarkideetan–) eta oso ezberdinak herritarrekiko eta gazteekiko, non nagusitzen diren sentimenduak asperdura, haserrea eta mesfidantza diren.

Beraz, bi polo oso argi ikusten dira multzo batean eta bestean. Kultura Politikoan urratsak egiteko edo herritarrek politikara hurbiltzeko, ezinbestekoa izango da alde horiek murriztea.

HIRITAR IDEALA(K) ETA DEMOKRAZIA

Lan honetan, beste ikerketa batzuetan ohikoak diren hainbat esaldi hartu dira kontuan, jendarte demokratikoetan hiritartasuna definitzeko hainbat ezaugarri biltzen dituztenak, neurri handiago edo txikiagoan. Politikan eta gizarte elkarte edo mugimenduetan modu aktiboan parte hartzea, hauteskundeetan bozkatzea, arauak betetzea eta norbere iritzia sortzeko gaitasuna izatea. Lehen biak hiritarren betebeharrak komunitarioak lirateke, besteak hiritarren betebeharrak individualak. Esaldi horietako bakoitzarekin dagoen adostasun mailak adierazten du zer-nolako ikuspegia dagoen hiritartasunaren inguruan.

Lan honetan ikusi denez, norberaren iritzia propioa sortzea izan da bi multzoetan garrantzi gehien hartu duen ezaugarria⁹. Aldiz, hortik abiatuta, badira aldeak euren artean. Batzarkideen iritziz, hauteskundeetan parte hartzeak garrantzi gehiago du politikan edo elkarteetan modu orokorragoan parte hartzeak baino. Adituen ustez, ordea, borondatezko elkarteetan parte hartzea garrantzitsu da hiritar onaren ideia osatzeko, politikan modu aktiboagoan parte hartzea baino askoz gehiago, gainera. Eta azken horri ere garrantzitsuagoa deritzote bozka emateari baino. Bi multzoetan bigarren mailako kontutzat hartu dute legeak eta arauak betetzea, hiritar onaren adierazgarri gisa betiere. Hala ere, beste erantzun batzuei erreparatuz gero (adibidez *Baimenik ez duen manifestazio edo ekintza batean parte hartu* edo *Zenbait produktu erosi edo erosteari utzi, arrazoi politikoengatik, etikoengatik edo ingurumen-arrazoiengatik*) horiek duten atxikimendu txikia ikusita, legeen edo arauen errespetuak badu pisurik haien ikuspuntuetan,

⁹Horrek bat egiten du Europako iparraldeko eta erdiguneko biztanleriaren iritziarekin. *European Social Survey 2002-2003*.

gehiago batzarkideen kasuan adituenean baino. Hortaz, posizio anbiguala edo behintzat ñabardurak behar dituen da legearen aurreko jarrera horrek.

Beraz, multzo batean eta bestean, hiritar ona izateko ezaugarri nagusian badago adostasuna, baina hortik aurrera desadostasunak hasten dira. Bereziki, gai sozialetan edo politikan parte hartzeko orduan (elkarteetan, politikan zuzenean edota bozkaren bidez). Batzarkideen artean hiritar indibidualaren irudiak pisu gehiago du, adituen artean baino.

Idealizatzen den hiritarraren ideia horrek zenbat du errealitatekin? Hau da, batzuek eta besteek zenbateraino azpimarratu dute ezaugarri bat edo beste haien esperientziatik abiatuta? Inplikazio sozial eta politikoari buruzko iritzietan ikusten den bezala, batzarkideek orokorrean uste dute herritarrek interes gutxi dutela politikaren inguruan, herritarrek ez dutela uste politikak eragiten dienik edo parte hartzeko gogo gutxi dutela. Aldiz, adituek interes eta kezka gehiago antzematen dute herritarrengan, baita parte hartzeko gogo gehiago ere, baina horretarako batzarkideek baino aukera gutxiago ikusten dituzte.

Hiritarren eskubideen eta betebeharren planoan, batzarkideek oso exigente ikusten dituzte orokorrean hiritarrak eta adituek exigente bai baina ez hainbeste. Betebeharrekin konplitzeko orduan, aldiz, ados daude: bi multzoetan uste dute kontzientzia gutxi dagoela.

Demokrazia terminoaz galdetu zaienean ere, hiritar idealaren irudiaren inguruan esandakoarekin koherentzia, badirudi batzarkideen artean ikuspegi indibidualagoa (akaso liberalagoa) dagoela (demokrazia askatasunekin nabarmen gehiago lotzen dute eurek adituek baino) eta ikuspegi komunitarioagoa (akaso errepublikanoagoa) adituen artean (hiritarren parte-hartzearekin zerikusia duten erantzunak eta Berdintasuna eta justizia nabarmentzen dituztenak eman dituzte).

NAZIO AUZIA ETA DEMOKRAZIA

Demokrazia nazio auziarekin lotzen denean, bi baieztapenek lortzen dute ia erabateko adostasuna bai batzarkideen artean, baita adituen artean ere: Gizarte demokratiko batean edozein proiektu politikok izan beharko lukeela garatzeko aukera, baita independentziak ere eta bide horretatik, Euskal Herriak eskubidea duela libreki eta modu demokratikoan bere etorkizuna erabakitzeko.

Atxikimendu hori jaitsi egiten da, bereziki batzarkideen artean, demokrazia kontzeptua erabakitzeko eskubidearen ezinbestekotasunarekin lotzen denean. Hau da, esaldien atxikimendu ezberdinen irakurketa eginez, esan daiteke inkestatuen ustez gizarte demokratiko batean erabakitzeko aukera (are gehiago, independentziarako aukera) egon beharko litzakeela, baina hori pentsatzen duten batzuentzat, aukera hori ez egoteak ez du esan nahi demokraziarik ez dagoenik.

Inkestaren emaitzak ikusita deigarria egiten da batzarkideen artean independentziaren alde daudenen proportzioa. Lautik hiruk independentziaren aldeko jarrera agertu dute (%76,1)¹⁰

¹⁰ Inkestatutako adituen artean proportzio hori altuagoa izan da -%82,1-. 58. Euskal Soziometroaren arabera - 2015eko ekaina- Gipuzkoarren artean independentziaren aldekoak eta aurkakoak proportzio berdina zuten, %26,9, eta Egoeraren arabera %32,9.

PARTE-HARTZE SOZIALA ETA POLITIKOA, AUKERAK ETA OZTOPOAK

Hiritarraz batzuek eta besteek dituzten ikuspegiak politikari buruzko eta bertan parte hartzeko moduei buruzko iritzietan eragiten dute. Hala ere, desadostasunez gain, batzarkide eta adituen artean badira adostasunak ere arlo honetan.

Herritarrek politikan parte hartzeko eduki dezaketen jarrera gorabehera, bai batzarkideen gehiengoak baita adituenak ere uste du erakundeek ez dutela behar adina egiten herritarren parte-hartzea errazteko. Batzarkideen ustez, herritarrek prest daude gehiago parte hartzeko, baldin eta horrek ahalegin handirik eskatuko ez balie. Norabide horretan, adituek prestutasun handia erakutsi dute erakundeekin lan egiteko. Lehentasunez nori zabaldu parte-hartzea? Bi multzoek bat egin dute horretan: hiritarrei lehenbizi, elkarte sozialei ondoren eta hirugarrenez adituei. Elkarte pribatuak azken lekuan kokatu dituzte.

Adierazgarria da, halaber parte-hartze prozesuetan politikarien presentziaren inguruan batzuek eta besteek dituzten iritzia. Adituek ez dute uste eragin berezirik duenik euren presentziak, eta izatekotan prozesua oztopatzeko izan daitekeela uste dute. Aldiz, batzarkideek, politikariak egoteak prozesua errazten duela uste dute nagusiki.

Parte-hartzea nola egituratu behar litzatekeen galdetzen zaienean, alde handia sumatu da batzarkideek herritarrez duten iritzia eta adituen nahien artean. Bi multzoen artean badago elkargune bat, non hiritarrek iritzi ematea ontzat hartzen den, baina uste dute politikariei dagokiela erabakia hartzea. Elkargune horretatik aurrera, ordea, ikuspuntuak aldendu egiten dira, batzarkideen ustez herritarren eskaera haiek eraginkorrak izatea da eta hiritarrak gehiegi ez eragozte. Adituen ustez, hiritarrek erabaki gehiago hartzeko modua izan behar lukete.

Beraz, adituek zer eskatzen diete politikariei? Batetik, hiritarrei aukera gehiago ematea parte hartzeko, prozesu horietan politikarien presentzia handitzea... eta, bestetik, batzuek eta besteek Gipuzkoako politikaz eta adituek politikarien inguruan dituzten irudiak kontuan hartuta, gardentasun gehiago, ikuspegi zabalago bat (unibertsalagoa) eta, bereziki, alderdikeriak gaintitzea, haien artean adostasun gehiago egotea.

INTERNET ETA POLITIKA

Interneten erabilera, bereziki hemengo, baina baita kanpoko gai sozial eta politikoen inguruan informazio gehiago eskuratzeko balio die batzarkide eta adituei, baita iritzia eman eta zabalpenak egiteko ere.

Bai batzarkideen bai adituen artean, %5,0 inguruk ez du konturik ezein online sare sozialetan. Badutenean artean erabilera altua da eta erabiltzeko modu nagusia mezu zuzen pribatuen bidea da. Foroak eta programak ere erabiltzen dituzte, baina besteek baino gutxiago. Hala ere, ez dirudi sare horiek politikan modu aktiboagoan parte hartzeko tresna baliagarriak direnik, gutxiago adituen kasuan. Gainera, sare horien bidez sortu daitezkeen harremanek, hasiera batean behintzat, ez die konfiantza giro bat sortzen. Konfiantza gehiago dago pertsonak zuzenean edo pertsonalki ezagutzen dituztenean.

3 EMAITZAK

- 1 Oinarrizko hainbat balio
- 2 Sozializazio politikoa
- 3 Demokraziaren kontzepzioa eta hiritartasuna
- 4 Gipuzkoako politikaren eta politikarien gaineko iritziak
- 5 Gizarte gaien inguruko kezka eta parte hartzea
- 6 Parte-hartze instituzionalaren inguruko jarrera eta iritziak
- 7 Jokabide politikoak. Parte hartze elektorala
- 8 Interneta eta parte hartze politikoa
- 9 Nazio auziarekin, gatazkarekin eta indarkeriarekin lotutako jarrera eta iritziak
- 10 Laginen ezaugarriak

3.1. OINARRIZKO HAINBAT BALIO


3.1.1 HAINBAT GAIREN GARRANTZIA NORBERAREN BIZITZAN

Galdetegia bete duten batzarkide eta adituen artean antzekotasun handiak daude norberak bizitzan hainbat baliori ematen dion garrantzian. Bi taldeen batez bestekoak alderatzen badira, aipatutako balioen artean 'familia-harreman onak edukitzea'-ri ematen diote garrantzi gehien (9,00 batzarkideek eta 9,06 adituek). Horren ondotik datoz 'osasuntsu egotea eta osasuna zaintzea', 'ingurumena zaintzea' edota 'kultur gaitasun eta lan prestakuntza ona lortzea'. Azken hori bigarren lekuan ageri da adituen artean.

Garrantzi gutxien ematen zaien balioen artean, 'dirua irabaztea', 'dirua eta denbora eskaintzea dotore edo guapo egon ahal izateari' eta 'alderdi erlijioso edo espiritualekin kezkatzea' aurkituko ditugu (azken horrek eman ditu batez besteko apalenak, 4,02koa eta 3,91koa, hurrenez hurren).


	Batez bestekoa	
	Batzarkideak	Adituak
Familia-harreman onak edukitzea	9,00	9,06
Osasuntsu egotea eta osasuna zaintzea	8,53	8,55
Ingurumena zaintzea	8,24	8,45
Kultur gaitasun eta lan prestakuntza ona lortzea	8,02	8,67
Politika gaietan interesa agertzea	8,02	7,55
Sexu bizitzarekin aseta sentitzea	7,70	7,46
Auzoa edo komunitatea hobetzeko gauzak egitea	7,60	7,77
Munduko beste lekuetan gertatzen denarekin kezkatzea	7,48	7,57
Lanean arrakasta edukitzea	7,09	7,19
Denbora libre/aisirako asti asko edukitzea	6,89	6,55
Lagun eta ezagun asko edukitzea	6,81	7,09
Dirua irabaztea	6,09	6,17
Dirua eta denbora eskaintzea dotore edo guapoa egon ahal izateari	4,23	3,99
Alderdi erlijioso edo espiritualekin kezkatzea	4,02	3,91

Iturria: Aztiker, "Gipuzkoako kultura politikoaren inguruko ikerketa prozesuaren lehen fasea, 2016"



Esango zenidake nolako garrantzia duen ondoko arloetako bakoitzak zure bizitzan? Batez bestekoa. (Garrantzi handia)	
Familia-harreman onak edukitzea	9,01
Bikote harreman onak izatearen garrantzia	7,72
Kultur gaitasun eta lan prestakuntza ona lortzea	6,64
Lanean arrakasta edukitzea	5,65
Fisikoki sasoi betean mantentzea	4,44
Denbora libre/aisirako asti asko edukitzea	3,81
Auzoa edo komunitatea hobetzeko gauzak egitea	2,62
Diru asko irabaztea	2,03

Iturria: 58. Euskal Soziometroa: Kultura demokratikoa 2015eko ekaina




3.1.2 ERLIJO SINISMENAK

Erljio sinismenei dagokienez, batzarkideek joera katolikoagoak dituzte adituek baino. Lehen multzoan ia erdiek katoliko jotzen dute beren burua (%10,9k praktikante eta %37,0k ez-praktikante). Adituen multzoan, aldiz, laurdena baino gutxiago dira katolikoak (%8,3 praktikante eta %14,3 ez-praktikante) eta gehiagok definitzen dute beren burua indiferente/agnostiko (%34,5) edo ateo gisa (%33,3).

Eta erlijioari dagokionez, zer zarela esango zenuke? Ehunekoak (%)

	Batzarkideak	Adituak
Katoliko praktikantea	10,9	8,3
Katoliko ez praktikantea	37,0	14,3
Beste erlijio bateko sinestuna	0,0	1,2
Nire sinismenak dauzkat, baina ez naiz ezein erlijiotakoa	10,9	7,1
Indiferentea, agnostikoa	19,6	34,5
Ateoa	21,7	33,3
ED	0,0	1,2
Guztira	100,00	100,00
Oinarria (n)	46	88

Iturria: Aztiker, "Gipuzkoako kultura politikoaren inguruko ikerketa prozesuaren lehen fasea, 2016"




3.1.3 ETORKIZUNEAN EMAN DAITEZKEEN HAINBAT ALDAKETEN INGURUKO IRITZIAK

Beren bizimoduan gerta daitezkeen hainbat aldaketari buruzko iritzia galdetuta, batzarkideen eta adituen erantzunak antzekoak dira. Pertsonaren balioa eta harreman afektiboen garrantzia adierazten duten esaldiak nabarmendu dituzte gehien. 'Garrantzi gehiago ematea pertsonaren garapenari' aukera nagusitu da bi multzoetan (8,64ko batez bestekoa batzarkideen artean eta 9,18koa adituen artean), eta 'pertsonen zaintzari garrantzi gehiago ematea' ondoren (8,38ko eta 8,89ko batez bestekoak). Hirugarren batez besteko handiena batzarkideen artean 'bizitzeko modu sinple eta naturalago batera iristea' (7,98) eta adituen artean 'garrantzi gutxiago ematea diruari eta ondasun materialei' (8,29). Ikuspegi ekonomikoa edo politikoa adierazten duten aldaketak zerrendan beherago topatuko ditugu.

	Batez bestekoa	
	Batzarkideak	Adituak
Garrantzi gehiago ematea pertsonen garapenari	8,64	9,18
Pertsonen zaintzari garrantzi gehiago ematea	8,38	8,89
Bizitzeko modu sinple eta naturalago batera iristea	7,98	8,06
Garrantzi gehiago ematea familia-bizitzari	7,84	7,57
Garrantzi gutxiago ematea diruari eta ondasun materialei	7,61	8,29
Gure ekonomia nazioartean lehiakorra izango dela bermatzea	7,44	7,29
Botere gehiago ematea herritarrengandik hurbilen dauden erakundeei; udalei, adibidez	7,36	7,66
Garrantzi gehiago ematea teknologiaren garapenari	6,49	6,06
Lanak gure bizitzan duen garrantzia gutxitzea	6,16	6,75
Errespetu gehiago erakustea agintariei	5,84	5,24

Iturria: Aztiker, "Gipuzkoako kultura politikoaren inguruko ikerketa prozesuaren lehen fasea, 2016"




3.1.4 ETORKIZUNEAN EAE-RENTZAT ETA GIPUZKOARENTZAT LEHENTASUNEZKO GAIAK


	Gipuzkoako erronkak		EAEko erronkak	
	Batzarkideak	Adituak	Batzarkideak	Adituak
Bakegintza, gatazkaren ondorioak, bizikidetzatza	13	14	12	15
Erabakitze eskubidea, subiranotasuna	6	3	19	27
Demokrazia eta herritarren parte hartzea	3	10	4	7
Migratzaileak	3	5	3	6
Ekonomia eta enplegua	46	61	40	56
Eredu ekonomikoa	2	30	3	18
Justizia soziala, ekitatea, kohesio soziala	8	23	6	19
Zerbitzu publikoa, gizarte zerbitzuak, ongizate eredia	21	22	19	23
Ingurumena eta aldaketa klimatikoa	21	20	6	9
Euskara normalizazioa, erabilera handitu	4	22	5	21
Formakuntza digitala	1	1	1	0
Proiektu estrategikoen amaitzea/bultzatzea	2	4	0	4
Giza eskubideetan erreferente bilakatzea	2	0	0	0
Fiskalitatea	4	7	4	8
Erakunde publikoak	2	2	3	6
Politika demografikoa	7	24	7	18
Egituraketa politikoa	2	0	2	0
Hezkuntza	3	10	7	17
Adostasun politikoak zabaldu	1	2	0	10
Lurralde oreka	2	4	0	6
Genero berdintasuna	1	9	1	8
Osasun erakundeak	1	1	3	3
Pentsio sistema propioa	0	0	1	0
Nazioarteko harremanak	0	0	1	2
Lurraldearen posizionamendua Erkidegoaren barruan hobetu	0	1	0	0
Kultura	1	28	0	21
Euskal Herri mailako / Herri ikuspegiak lan egin	0	3	0	12
Mugikortasun azpiegiturak	0	3	0	1
Etxebizitza	0	3	2	0
Beste	0	1	1	0

